



# Magrebeko kultura gertuago, Ibarra atzo egindako festaren ondoren

**IRAZKI** ▶ Idazkera, dantza, musika, gastronomia eta beste ohitura batzuk erakutsi zituzten Irazkikoek ▶ 11



Henna tailerrak ikusmin handia piztu zuen gaztekoen artean. NOELIA LATABURU



JULEN GOIKOETXEA

## Haurrak eta musika protagonista akanpadan

**ALEGIA** ▶ Goizean haur tailerrak izan ziren Langaurren eta gauean, kontzertuak herrian; gaur ere ekitaldi ugari izango da ▶ 10

**VILLABONA** ▶

## Gaur hasiko dira Santio jaiak; bihar, egun handia

Angel Ugarte, pilota,  
errebote, musika ▶ 4-7

**askatasuna!** PRESO ETA IHESLARIEN ALDEKO JANTOKIA

Zatoz  
Billabonako festetan  
preso eta iheslariekin afaltzera!

Uztailaren 24tik 31ra  
arratsaldeko 8etatik 12etara  
Berdura plazan

**JESUSEN BIHOTZA  
IKASTOLA**

Ikastolaren eskaintza

- Irakatsi
- Hezi
- Pertsona osatu

Ikastolak festa alaiak  
igaro ditzazuen opa  
dizue guztiei!  
**Gora Santioak!**

## MINUTU ERDIAN ▶

## Rondilla kaleko bidegorria kendu egingo dute

**HIRIGINTZA ▶** Duela hila-bete baino gehixeago Tolosan bidegorria jarri zutenetik —ekainaren 4an inauguratu zuten udal agintariak—, hainbat kexa jaso dira Rondilla kalean pasatzean sortzen dituen arazoengatik: errepide estua gelditzen dela, herriko trafiko handiena hortik dihoala eta ilara luzeak sortzen direla, arriskutsua dela oinezko, txirrindulari eta autozaleentzat... Asteartean udal ordezkariak, Alde Zaharra Dendak, Igarondo eta bilzilagunak elkartu ziren eta kexa horiek ikusita bidegorria Rondilla kaletik kentzea erabaki zuten. Hemendik aurrera, Alde Zahar osoa peatonala denez, txirrindulariek ere hor ibiltzeko aukera izango dute eta aurrerago —irailan edo— bidegorriaren trazaketa berria Alde Zaharrean nondik joan beharko duen erabakiko dute. Datoren egunetan hasiko dira Rondilla kaleko bidegorriko piboteak, seinaleak eta pintura markak kentzen udal langileak. Bitartean, Rondilla kaleko ibilbidea erabiltzen jarrai dezakete txirrindulariek eta handik aurrera, Alde Zahar osoa.

## GUTUN@K ▶

## Gaztetxei eskerrak emanez

Gaztetxeek, sortu zirenetik jasan behar izan dituzte arazoak eta azkenaldian areagotu den jazarpena ez da kasualitate bat. Arriskutsuak dira egungo botere nagusi burges kapitalistarentzat, sobieten antzeko funtzionamendua baitute. Gizarte eredu kapitalista itogarriari alternatibak eraikitzea benetako berdurra sortzen duela nabari da hiriburu edota edozein herritako udal burges batean, hauen suntsipenerako lege dogmatiko nahiz indarkeria polizialak erabiliz. Gaztetxeak, gazteen indarrak eta antolakuntzak eraikitako eremu libreak, sormen handikoak, autogestio-natuak eta alternatiboak dira, klase agintariaren kalte-tan.

Iruñeko Euskal Jai eta Bilboko Sorgintxulo Gaztetxeak hustu eta suntsitzea edo beste hainbati gertatutakoak etorriko zaizkigu burura. Eskualdean, Villabonako Gaztetxeak, oraintxe bertan duen mehatxua gogor salatu nahi dugu. Etxeak egin nahi omen dituzte justu Gaztetxea dagoen tokian. Oraingoan ere tiro batekin bi txori bota nahi dituzte, etxeak eginez negozio ederrak egiten jarraitu (lehen

ere badago makina bat etxe huts Villabonan) eta deserosoa den Gaztetxea bota. Baina horra hor gazteen ekintza eredugarria etxe bat okupatu, bejondeizuela!

Hor dugu, baita ere, Anoeta Gaztetxeak antolatu duen ekitaldiz betetako uztailako egitaraua: *Antolakuntzaz, autogestioaz, gazteen ametsak landuz!* lelopean. Horrela, Venezuelako eta Boliviako iraultzen inguruan hitzegiteko aukera eman digute. Azken hila-betetan, baita Bilboko Kukutza, Burladako, Ibarako eta Villabonako Gaztetxei esker ere, Kubako iraultzari buruz, Frank Josue Solar, Kubako Gaztedi Komunistako kidearekin eta Irlandako prozesuaz, Gerry Ruddy, IRSPko, Irlandako Alderdi Sozialista Errepublikano Komite Nazionalako kidearekin aritu gara. Mila esker.

Zergatik ordea jardunaldi hauek? Gure zeregina justizian, askatasunean eta berdintasunean oinarritutako gizarte berri baten alde, gizarte sozialista baten alde lanean jarraitzea da. Baina horretarako, lehenik inguratzeko gaituen errealitatea ulertzea beharrezkoa dela uste dugu, hau eraldatu nahi badugu behintzat. Eta iraultzek ematen dizkiguten ikasgaiak gureganatzea eta garaipena posible egiteko klaseko inde-

pendentziarekin antolatzea ezinbestekoa izango da. Asko dira iraultzek ematen dituzten irakaspen politikoak ezkutatu nahi dituztenak, baina, gertaera horiek lurperatzeak ez dio mesederik egiten sozialismoaren helburuari. Gogoan hartu behar dugu Hegoameriketako iraultzak ere geure iraultzak direla, munduko inperialismoak jazarritako herrien borroka askatzaileak geure borroka direla; eta era berean gaztetxe baten sorrera edo galera guztion ardura dela. Langile klasearen iraganeko borroketa, esperientzia historiko horretatik, klaseko ikuspuntu internazionalistatik ikasi egin behar dugu. Historiatik ikasten ez dutenak iraganeko akatsak berriro errepikatzen kondenatuta baitaude. Eta eguneroko lanetik ere ikasi egin behar dugu. Langile klasea, gaztediaren laguntzarekin eta programa iraultzaile batekin antolatuz gero burgesiak ez du zereginik izango.

Honela eskualdeko gaztetxeen arteko harremanak sendotzera animatzen zaituztegu, denok elkartuta indaratsuagoak baigara. Sozialismoari ekin, jo ta ke, mugarik gabe!

MANU ODRIOZOLA, IBON ARTOLA ETA  
BESTE BOST LAGUN ▶ ANOETA

TOLOSALDEKOHITZA.  
INFO ▶

## Zer iruditzen zaizu Tolosako bidegorria?

Rondilla kaletik doan zati txapuza hutsa iruditzen zait: arriskutsua, zentzugabeke-ria...

NEKANE ▶ TOLOSA

Eliri erantzuna: Bizikletan ibiltzea bultzatzearen alde nago, baina Rondilla kaleko penagarri dago, ez kotxezaleentzat bakarrik, den-darientzat... edo zuri zerbait gertatu eta anbulantzia behar baduzu, nondik pasako da? Nik ez dut nahi kale Nagusian ibiltzerik, nei berdin dit Agintari kaletik pasa eta izkutuan pasatzen banaiz ere, baina ez dut nahi Tolosa zeharkatu behar dudana ba-koitzean 30 minutu pasatzea. Egiten al dio kalterik bidegorria Agintari kalean edota Alde Zaharreko beste kaleren batean jarritz? Seguru orain dagoenak denoi egiten digun kaltea baino gutxiago, zuek lasaiago ibiliko zarete, arriskutik kanpo eta gu ere bai!

GIDARI BAT ▶ TOLOSA

## Nolako Tolosa nahi duzu aurrerantzean?

Merkatalgunea? Zer merkatalgunea eta ze kristo, erotu egin gara edo? Eta zergatik ez areoportu bat Tolosa-New York edo Oriabaian superportu bat edo Uzturren Sky estazio elur artifizialarekin. Bai jauna, jarri ditzagun McDonaldek bazter guztietan. Merkatalgune-tan, lau sosen truke kontratu zaborraz josi langileen prekaritatea gehiago handitu, erdal kultura barruraino sartu, herriko hainbat familien ekonomia pikutara bidali eta gutaz apertzen direnean Merkatalgunearen jabeek alde egingo dute gu bezelako beste zozopastel batzuei adarra jotzera. Hau duk hau iparra galtzea. Garai batean gaztetxe batetatik merkatalgune bat eskatuko balute, txantxetan ari zirela edo tripi txar bat jan zutela pentsatuko genuke eta orain zer eta Bonbereneatik merkatalgune bat eskatzen. Laister zezenketak antolatu ditugu Ibarako gaztetxeak eta Lizartzakoak Araxexeko I Jota txapelketa.

KAXKAILU ▶ TOLOSA

## KOMIKIA ▶

GORKA SALABERRIA



BI HITZETAN ▶ JOSEBA AGIRREZABALA (TXIRRINDULARIA)

## «Etorkizuna beltz ageri da; orain ikusi beharko da aukerarik agertzen den»

**Iñigo Asensio** ▶ Joseba Agirrezabalari txirrindularitzaren alde mikatzena dastatzea egokituz zaio. Andalucía Paul-Ver-san taldeko zuzendariak, bere fitxa bideratzeko epea pasa zaiela aitxaki, profesional mailara salto egiteko ametsa lapurtu diote txirrindulari anoferrari.

**Kontaguzuz, Joseba, nola izan**

**den orain arte gertatutako guztia.**

Denboraldi hasieran nire fitxa bideratzeko berandu zebiltzala eta, ekainerarte itxaron nezana eskatu zidaten, printzipioz Ordiziako Klasikoan edota Espainiako Txapelketan estreinatuko. Bitartean afizionatuetako taldearekin aritzeko akordioa iritsi ginen eta horrela

aritu naiz, gutxinaka sasoi onera iristen, baina orain kontu berarekin datoz; epea pasa zaiela diote. Sinatu genuena lan kontratu bat zenez, beraiek ordaindu egingo didate eta nik ez dut ezer alegatzerik izango.

**Nola zaude animoei dagokienez?**

Beno, orain hobetoxeago. Beti-



IMANOL GARCIA

ko *gruppetarekin* hasi naiz berriro entrenatzen. Ez dakit oso ondo zeri heldu, baina pedalei ekitea besterik ez zait gertatzen, gero ikusiko dugu zer egingo dugun.

**Eta nola daude gauzak etorkizunera begira?**

Aurten kontratua amaitzen dut eta etorkizuna beltz ageri da; orain ikusi beharko da aukerarik agertzen den. Nik txirrindularia izaten jarritzen dut, ea hemendik denboraldi amaierararte zortea dagoen eta beste talderen bateko deia jasotzen dudana.

### ESANA ▶



**EDURNE PASABAN**  
MENDIZALEA

«Izozketen ondoren, ez nekien oinek nola erantzungo zidaten; Broad Peak? Beste baterako utziko dugu»

### DATUA ▶

**8.805**

**ibilgailu.** Tolosan dauden motor ibilgailu kopurua da, horietako 6.664 autoak dira. Villabonan 2.926 dira, Ibarra 2.337, Zizurkilan 1.749, Anoetan 1.084, Asteasu 1.034, Alegian 915, Iruran 685...

### PASADIZOA ▶

**Sutea Berazubini.** Laster beteiko dira 50 urte Berazubi stadiumeko zubia erre zela. Sutea 1955eko abuztuaren 11n izan zen eta tribuna osoa kiskalita utzi zuen. Handik gutxira tribuna berria egin zuten, gaur egun dagoena. Hilabete batzuk lehenago, maiatzean, Berazubiko zubia eraiki zuten, Alfonso X. erregearen izena emanaz.

### UZTURRETIK ▶ AGUSTIN AMIANO GURRUTXAGA

## Urak izutu ditugu



**U**rtetik urtera lehorrari edo lehorteari beldur handiagoa diogu. Lehor dagoela entzuten dugu maiz, bazterrek sikatu direla, aspaldi ez duela euririk behar bezala bota, bibelarrak biltzen ez dela lanik izango.

Bitartean, euriari ur bihurtzea debekatu diogu. Inguruko erriberak pabiloi bihurtu

ditugu edo beste bazter bateko lurrez edo hondakinez estali. Mila kiloko harriz nahiz ezkutalekurik gabeko hormigoiaz mugatu ditugu ibaiak eta errekek. Kontuz hortik atera gero, «kaltea» sortuko duzue eta.

Orain lanbroak ez du harkaitzean putzu habiarik sortzen, bidean ahitu egiten da azpian errepide zabal horiek ikustean. Harrituta begiratzen diogu errekekako amuarrairain tiantadunari, kanpoko espeziea baltitz bezala. Eta ez dugu igel hotsik entzuten, nahiz eta belarri-zuloak goizero garbitu, urez, noski. Batek daki karramarroek gure artean egoteari zergatik uko egin zioten.

Edota zumarren izena olerkietarako nolaz mugatu den.

Zaparradak ez ditu zuhaitzen hostoak freskatu behar, ez, kaleak garbitu behar ditu. Gure zikinkeria guztiak bildu eta eraman behar ditu; nora, eta erreka, ibaira. Kolorerik gabea izatea erabaki bazuen, kolore itsusiena erantsi diogu. Nork esan zuen usainik gabea zela? Zapora ezari dagokionez, hobe ez dastatzea.

Urak nazkatu egin ditugu eta ez dute euri itxuran gugana hurbildu nahi. Ez da harriztekoa, gu ere, muga, debeku eta kutsaduratik ihesi gabiltza, udan batez ere

### IRITZIA ▶ YURRE PEÑAGARIKANO (TOLOSAKO ALDE ZAHARREKO BATZORDEBURUA)

## Guztion bizi kalitatea hobetzeko

**G**uztiok dakigu Alde Zaharrak azken urte hauetan eraberritze prozesu handia daramala eta oraindik ere urte askotako lana gelditzen zaigula. Eraberritze hau ahalik eta hobekien emateko beharrezkoa da guztion partaidetza eta inplikazioa. Eta horixe da Alde Zaharreko batzordean lortu nahi izan duguna; sektore guztiei, eta bizilagunei entzun eta denon artean lan egin guztion bizi kalitatea hobetzeko.

Batzorde honen baitan, hainbat ekintza bultzatu dira, bere txikitasunean, Alde Zaharraren irudia hobetzen laguntzen ari direnak: argitasunaren hobekuntza nabarmena, loreak, etabar. Honekin batera informazio totem-ak jarri dira Triangulo plazan eta Gorosabel-en eta kaleen izenen errotilazio berria estreinatu dugu.

Baina, guzti honekin batera, gure batzordean, Alde Zaharra promozionatzeko beharra azaldu zen. Eta horretarako, laister kalean izango dugun liburuxka berria egin dugu. Promozionatzeko behar hau, Tolosako gune historiko eta monumentalak, oso preziatua dugulako eta oso harro sentitzen garelako sortzen da; beraz, lehendabizi,

Tolosar guztiontzat baliagarria izango den liburuxka egin nahi izan da, baina noski gure herritik at ezagutaraztea ere bai, hau da promozio turistikoa egitea.

Turismoa Euskal Autonomi Erkidegoan, sektore ekonomiko garrantzitsua bihurtzen ari da. Gipuzkoa mailan ere turismoak hazkuntza nabarmena izan du azken urteotan. Eta horren arrazoia, gaur egun turismoa zentzu zabalago batean ulertzen delako gertatzen da. Gaur egun, Landa turismoa, abentura turismoa, turismo historikoa, kulturala, gastronomikoa etabar luze batetaz hitz egiten da, baina garrantzitsua dena, kultura eta herrien ezagupenean datza batez ere gaur egungo turismoaren xedea; orain dela hamarkada gutxiago eguzki eta hondartzakoari ihes eginez.

### TURISMOA

«Tolosako Alde Zaharrak eta Tolosak bere osotasunean, izugarriko potentziala du bisitari eta turistak erakartzeko»

Tolosako Alde Zaharrak eta Tolosak bere osotasunean, izugarriko potentziala du bisitari eta turistak erakartzeko. Horretarako promozio turistikoa oso garrantzitsua da, baina noski, garapen turistikoa hau garapen iraunkorraren ikuspegitik planteatu beharko da. Honela, garatuko diren ekintzak, baliabide natural eta kulturalak bezala mantendu eta hobetzera zuzendu beharko dira.

Baina turista eta bisitariak erakartzea ez da erraza eta hori Gipuzkoako 2004 urteko datuetan ikus dezakegu. Gure eskualdera, Tolosaldera, Gipuzkora etorri ziren bisitarien %1,5 besterik ez zen gerturatu.

Hau dela eta, gero eta nabarmenago ikusten dugu, denok elkarrekin lan egitearen beharra. Horretatik, uda honetan Gorrotxategi gozogintza museoak irekita mantentzeko akordioa sinatu da eta baita Santa Maria eliza eta Tolosako gune historikoan bisita gidatuak egiteko konpromisoa.

Tolosak, bere osotasunean baliabide turistikoa ugari ditu eta denon artean erakutsi eta promozionatu egin behar ditugu, baina batez ere gu geuk, tolosarrok, sinistu egin behar dugu hori horrela dela.



## ANGEL UGARTE ▶ TXEKOR DASTAKETAREN PRESTATZAILEA



HITZA

## «Egia esateko, jaiak erabat aldatu dira urte hauetan»

Puntista bezala mundu osoa zeharkatu ostean, Villabonan, «bere txokoan» gustura dagoela dio Angel Ugartek

### INÍGO ASENSIO

79 urterekin bere bizitzan duen egin behar bakarra «Eguberrietan postal batzuk idaztea» dela esaten duen arren, errealitatea guztiz desberdina da puntista bezala 18 urterekin Villabona utzi eta mundu erdia ezagutu duen gizon honentzat. Urte askotan Vi-

llabonako txekor dastaketa prestatu ondoren, berarekin elkartu da HITZA, kontatzeko hainbeste duen gizon honen abentura eta desbenturak entzuteko.

**Billabonarra izan arren mundu osotik ibilitakoa zara, ezta?**

Bai noski, ni Brasilen jaiotakoa naiz, baina gurasoak Villabo-

nakoak dira eta 11 urterekin etorri nintzen hona. 18 urte nituela puntista bezala atzerrira jo nuen, lehenengo Kanarietan aritu nintzen eta Espainiako zenbait frontoitan aritu ondoren Miamiara joan nintzen. Denboraldia Miamin egiten nuen eta denboraldien artean beste frontoietara jotzen nuen, La Habana, Mexico, Milan, Frantzia,

West Daytona etabar. 20 urtetan aritu nintzen profesional modura eta erretiratzean zenbait urte egin nituen Santo Domingo, Estatu Batuekin lotura zuten negozio batzuekin. Horrez gain gau klub bat ere zuzendu nuen, baina azkenean mundutik bueltaka ibiltzeaz nekatuta, Villabonara itzuli nintzen, nire txokora.

**Nola hasi zen txekor dastaketarena?**

Ume izanik nire aitonarekin arkume errea egiten ikasi nuen eta horrela La Floridan egonik, pilotarientzat arkume batzuk prestatzea bururatu zitzaidan. 60 bat lagun bildu ginen, pilotari eta senideen artean. 60 lagunentzako bazkaria ezin zen arkumeekin prestatu, eta horregatik txekorretan pentsatu genuen.

**Horrela mundu osotik prestatu izan dituzu txekor erreak?**

Bai, batez ere Estatu Batuetan hasieran eta gerora hemen Euskal Herrian. Burni batzuk prestatu nituen eta noiz behin-ka norbaitek deitzen zidan txekorra prestatzeko. Behin Daytonako empresagizon batek bere enpresaren 25. urteurrena ospatzeko, langile guztiakin bazkari bat antolatu zuen. 700 bat izango zirela uste zuten hasieran, baina eguna heltzeaz zegoela 1.200 lagun izango zirela esan zidaten. 5 txekor prestatu behar izan nituen guztientzat, goizeko hirutatik arratsaldeko hirurak arte aritu nintzen txekorrei bueltaka. Beste behin Daytona Beach-eko eliza baten inagurazioa ospatzeko 700 pertsonentzako jana pres-

tatu behar izan nuen; ez nau ezerk izutzen.

**Nahiz eta sekretu nagusia gordeko duzun, kontaguztu gaitetik nola prestatzen duzun txekorra.**

Sekretu bakarra pazientzia da. Txekorra erretzeko 12-14 ordu inguru behar dira eta denbora horretan txekorrarekin egon behar da, poliki poliki barnekaldea ere egiten joan dadin. Txerri gantza ematen diot ordu horietan, kanpokaldea distiratsua eta karraskatsua egon dadin, eta moztetakoan saltsa berezi bat botatzen diot. Barabuxia, perrejila, ozipina eta piperrarekin prestatzen dut. Argentinan *chimichurre* izenez ezagutzen dute eta gure artean *putaquelopario* izena ematen diogu, piperrarekin pasaz gero, benetan pikantea gertzen delako. Gainera txekorraren tamaina ere garrantzitsua da, egokiena 160 eta 200 kilo artekoa izatea da, bestela denbora gehiegi eramaten du erretzeak, eta ez da guztia ondo egiten.

**Amaitzeko, Angel, nola bizitzen dituzu jaiak, nola aldatu dira urte hauetan guztietan?**

Egia esateko jaiak erabat aldatu dira urte hauetan. Lehen goizeko ordubatetarako denak etxean ginen, orain ordubatean hasten dira. Batzuetan gure giroa jatorragoa zela esateko tentazioa izan dut, baina ongi pentsatzen jarrita oraingo jendeak ere ondo pasatzen bada; garaiak aldatu egin dira besterik ez. Jaiak ez dute ezer berezirik niretzat, urteko edozein garai bezala bizitzen ditut.

**EROSKI / city**  
Tel.: 943 69 43 09  
Berria, 28 • Villabona  
**Festak ondo pasa!**

**BRONTXILLO**  
Harategia  
Arraindegia  
Tel.: 943696823  
Santio, 4  
Villabona  
Gora Santio Jaiak!

**ERLOJUDENDA - BITXITEGIA**  
**ONDO PASA JAIETAN!**  
Tel.: 943 69 13 90  
Nagusia, 26 • Villabona

**OSKI GAZTEA**  
Nagusia, 2 • Billabona  
Tel.: 943 69 31 31  
faxa: 943 69 31 31

**LARREA**  
okindegia  
**ONDO PASA JAIK!**  
gozotegia • gosariak  
kafe dastaketa eta salmenta  
LARREA auzoa, 8A  
Tel.: 943 69 11 05  
BILLABONA

UDA HONETAN JANTZI EZAZU  
**HITZAREN KAMISETA**  
SALGAI HITZAREN egoitzan eta  
**OSKI GAZTEA**  
Emeterio Arrese, 5 • Tel.: 943 65 56 21  
TOLOSA

MUSIKA ▶

# Herriko musikariak jaietan

Herriko jaietan herriko taldeentzat ere izango da lekua; gaur Nekin ariko da arratsaldean eta gauean, ostegunean, berriz, Nunbait ariko da, Coilbox madrildarrak eta Jauko Barik bizkaitarrekin batera

IÑIGO ASENSIO

Villabonako bi taldek beren musika aurkezteko aukera izango dute herriarren aurrean. Nekin-en dantzaldi musika eta Nunbait-en rocka entzuteko aukera izango da jai hauetan; partaideen hitzetan «eskertzekoa» da berrietaz gogoratu izana.

Nekin duela 5 urte sortu zuten batxilergoa ikasten ari ziren bost lagunek. Iñaki (bateria), Aloña (baxua), Patxi (gitarra), Nahikari (trikitixa eta ahotsa) eta Josunek (trikitixa eta ahotsa) osaturiko talde honek, kontzertu mordoa eskaini du urte hauetan, baina hala eta guztiz ere «ilusioz beterik» daude jotzen jarraitzeko. Lana ez da erraza, Josune eta Iñakik Arrasaten ikasten dute, Aloñak Bilbon eta Patxi Madrilen. Gauzak horrela oporretan bakarrik elkartzeko dira, erreperitorioa txukundu eta suertatzen zaizkien kontzertuak eskaintzeko. Nahikariaren hitzetan «egunean egunekoa bizitzen saiatzen gara» eta horrela lortzen dute bakoitzak dituen egin behar guztiak taldearekin bateratzea. 16 urterekin jotzen hasi ondoren beraien arteko giroa «oso ona» dela diote, bakoitzak besteekin elkarbizitzen



Bi saio egingo ditu gaurkoan Nekin-ek, arratsaldean, 20:00etan eta gauean, 23:30ean. I.ASENSIO



Hainbat kontzertu eskaini ondoren, maketa bat grabatzea dute helburu Nunbait taldekoek. I.ASENSIO

ikasi duela eta gustura daudela egiten dutenarekin. Gaur Villabonan joko dute uda honean eskainiko dituzten 20 kontzertu inguruetako hirugarrena.

Nunbait taldearen egoera desberdina da. Beraiek urtebete inguru daramate elkarrekin eta denbora horretan oztopo dezenterie egin behar izan diete aurre. Bere partaideen esanetan «Udalak ez du errezatzen musikariak eskaintzeko, eta denbora luzearen ondoren egoera kaxkarraren entseatzera behartuta gaude. Eskertzekoa da festetarako gurekin kontatu izana, baina oso ordutegi murriztua dugu jo ahal izateko eta horrela zaila da abestiak aurrera ateratzea». Norberen bederatzia abesti dituzte, eta hauei Sepultura, Hamlet eta Dut taldeen abesti bana gehituta, ordubete inguruko kontzertuak eskaintzen ditu «rock-a eta metalaren artean» aritzen den boskote hau. Ion (bateria), Sergi (gitarra), Mikel (gitarra), Iñaki (baxua) eta Ibanek (ahotsa) osatzen dute Nunbait. Nahiz eta egunerarte bederatzia kontzertu eskaini dituzten, beren helburu nagusia abestiak lantzen jarraitzea da; maketa bat grabatzea izango da hurrena.

**hitza** TOKI APROPOS  
IRAGARTZEKO  
**E**SKUALDEKO  
PLAZA  
661 678 818

**JANARIDENDA  
PILAR** Larrea,9 • Villabona  
Tel.: 675 713637

**GUANABANA**  
• OSAGARRIAK •  
Nagusia, 26 • Billabona • Tel 943 69 05 28

Talleres  
**denond** S.A.L.  
**ondo pasa jaietan!**  
Madril-Irun errep, 444. km • Billabona  
Tel.: 943 69 13 39 / Faxes: 943 69 41 59

**Irukide**  
Inmobiliaria  
Ondo pasa  
Jaietan!  
Ernio-bea kalea, 2  
20150 Villabona  
Tel.: 943 69 36 82  
Faxes: 943 69 36 82  
Emaila: inmobiliaria@irukide.com  
www.irukide.com

luminak  
bitxitegia  
erropa  
osagarrak  
dekorazioa  
**AMAIUR**  
Kale Nagusia, 29 • Amasa-Billabona  
943 69 16 11

Confecciones  
**LACUNZA**  
Gema Lacunza  
Clemente  
Nagusia, 51 • Villabona  
Tel.: 943 69 43 41

Era guztietako konponketak:  
larrua, ohiala...  
Kortinak eta kojinek  
ere josten ditugu  
**Begoñ**  
konponketak  
Kale Nagusia 43 • BILLABONA • Tel.: 943 69 36 12

**chaplín Pub**  
• Terraza ederra  
• kopak ...  
**Ondo pasa!**  
Errota, 6  
Tel.: 943 69 02 66

**Itzalpe**  
Eskeritxegia Intertexa  
Festak ondo pasa!  
Berría, 29 • Billabona • Tel. 943 69 06 23

**XABIER ARDOTEGIA**  
ARDOAK • SAGARDOA • KONTSERBAK • LIKOREAK, etab.  
Etixerainoko Zerbitzua  
Santio kalea, 4  
VILLABONA • Tel.: 943 69 13 24  
Jai zoriontsuak  
opa dizkizuet!!

## PILOTA ▶



Paretatik 32 metroara kokatzen den botarritik egiten dute sakea pelotariek. HITZA



Gero eta ikuslego eskasagoa duten arren, zenbait txapelketak gogoz jarraitzen du. HITZA

## IÑIGO ASENSIO

Urtero bezala, aurtengo jaietan ere joko garbi eta errebote partidak izango dira. Villabonako jaietan ordezkazekin diren arren, ezezagunak dira bi kirol hauek gehienontzat.

XVIII. mendearen erdialdera hasi ziren joko hauen aitzindariak jokatzen, zumezko saskia agertzearekin batera. Honen aurretik laxoan ere aritzen ziren, baina egun, Baztan inguruan bakarrik jarraitzen dute joko honekin. Errebotean, bost laguneko bi talde aritzen dira, hauetatik hiru aritzen dira saskiarekin, lehenengo, bigarren eta hirugarren *goanteak*, eta hauekin *sakalariak* eta *paradoreak* ere jokatzen dute. Sakea eskuz egiten da botarria-

## Errebote eta joko garbi partidak jaietan

Asteartean joko garbi partida izango da eta datorren igandean Hazparne-Villabona errebote partida; biak plazan

ren gainetik, paretetik 32 metroa eta bada berezitasunik, tanteoari dagokionez, eskupilotako tanteo arrunta egin beharrean, hamabosnaka zenbatzen delako, pilota joko zahar guztietan egiten den modura eta tenisean egiten denaren antzera. Horrela 30na berdintzean, bi tanto egin behar dira segidan jokoak lortze-

ko. Nahiz eta aintzina tanteo guztiak horrelakoak ziren, frontoi berrien eta apustu heltzearekin, tanteo arrunta erabiltzen hasi ziren zenbait pilota jokoetan.

Joko garbia, berriz, plaza irekian jokatzen da 3 pilotariko taldeekin, bi aurrelari eta atzulari batekin. Iparraldean indar handia duten arren, Hegoalde-

an ez dira osasun onegia duten kirolak. Zubietan eta Villabonan jolasten da batez ere, eta azkenaldian Oiartzunen ere izaten ari da nolabaiteko indartzea. Behar Zana elkarteak Joxean Jauregiren hitzetan «bi kirol hauen egoera benetan larria da. Gero eta jende gutxiago dago jokatzeke prest, baita laguntzaile bezala joate-

ko. Partidak ikustera gero eta jende gutxiago etortzen da eta egoera horretan gazteek ez dute jokatzen hasteko bultzagarririk aurkitzen». Tamalez egoerak ez du onera egingo duen itxura. Zaila da jendea mugitzea, are eta gehiago ikuslego eskasa duen kirol batez ari garenean. Errebote partida batek 7 epaile behar ditu eta horrek ere gauzak zailtzen ditu. Hala ere, oraindik ere zenbait txapelketak bizirik dirau. Duela egun batzuk jokatu ziren Iparraldeko Txapelketaren finalak. Festetan, hilaren 31n, duela 76 urte hasi zen Hazparne eta Villabonaren arteko partida jokatuko da eta abuztuan, Enrique Abril Txapelketa izango da Zubietan eta Villabonan bertan.

**OKINDEGIA**  
*kixubi*  
Gozotegia eta kafetegia  
Festak ondo pasa!  
Erriobeaa, 3 20150 BILLABONA 6 943 69 33 75

Janari Denda  
*Pepi*  
Ondo pasa Santiotan!  
Barria, 56  
20150 BILLABONA  
Tel. 943 69 16 38  
Etxeo Barazki eta Fruituak

**ERREZIL**  
PENTSU BILTEGIA  
Arroa, 20 • Billabona  
Tel.: 943 69 15 48

**GOIATZ** MARGOAK  
OROKORREAN  
INDUSTRIALA - FATXADAK - HARRIA GARBITZEKO...  
Errota kalea, 6 - 2.ezk • BILLABONA  
Tel.: 943 69 31 01 • faxa: 943 69 31 01 • mug.: 609 14 37 13

**AINHUA**  
ILEAPAINDEGIA  
ZURE ILEAPAINDEGIA  
festa zoriontsuak pasa!  
Tel.: 943 69 34 21 • Mug.: 629 349 624  
Etxe-ondo auzoa 7 • BILLABONA

**MAITE**  
JANARIDENDA  
Ondo pasa jaietan!  
kale nagusia, 11  
Villabona  
Tel.: 943691822

Errebote plaza z/g - VILLABONA • Tel.: 943 69 21 00 / Fax.: 943 69 33 76  
emaila: villabona@udal.gipuzkoa.net



# AMASA-VILLABONAKO UDALA

Herritar guztiei  
jai zoriontsuak opa dizkie.



DANTZA ▶

# Garaiak oroitzuz

'Oroituz' ikuskizun berriarekin egunerarte taldetik pasatutako guztiak omendu nahi dituzte

IÑIGO ASENSIO

Hogeita hamar urte beteko dituzte azaroaren 20an eta aukera aproposa iruditu zaie urte horietan dantza taldetik pasa den jende guztia omentzeko. Xede horrekin prestatu dute *Oroituz*; dantza, musika eta argiak bateratuko dituen ikuskizuna.

Orain arte *Garaiak aldatuz doaz* ikuskizuna aurkezten ari-tu dira, Villabonaz gain, Alegian, Olaberrian eta Anoetan ari-tu direlarik. Bihar, Villabonako Santio Jaietan urtero egiten duten modura, ikuskizun berria aurkeztuko dute, *Oroituz*, 22:30etan Olaederra kiroldegian. Oinkari dantza taldeko arduradunen hitzetan, «herrian aritzea beti da berezia, jaietan egiten den saioan ikuskizun bereziak egiten saiatzen gara». Lehen aipatu bezala dantza, musika eta argiak izango dira protagonista nagusiak. Edu Muruamendiarezek prestatu du koreografia; musikari dagokionez, perkusioa, bibolina, txistua, txalaparta, kitarra, baxua, akordeoia, zeharkako flauta eta aho soinua joko dituzte, Xanet Arozenaren zuzendaritzapean ariko diren zortzi musikariek eta argien ardura Iker Vacas tolosarrak izango du, ikuskizunari kolore jartzeaz gain, zenbait bideo proiektio



Dantza, musika eta argiak bateratuko ditu bihar aurkeztuko den *Oroituz ikuskizun berriak*. HITZA



Jantziak eta materialak lortzeko, Arkaitz, Alurr eta Udaberri dantza taldeen laguntza jaso dute. HITZA

zio egiteko. Guztira 125 lagun inguru ariko dira; helduen taldea osatzen duten 40 dantzariak, ikastaroetan ari diren 75 ume inguru eta aipatu ditugun musikariak. Hala ere, arduradunek ez dituzte eszenatokitik kanpo ariko ez diren laguntzaile guztiak ahaztu nahi, «bihar dantzan ariko diren laguntzaile asko izan ditugu, gure inguruan beti aritzen direnak. Hauez gain beste dantza talderen laguntza ere jaso dugu, Añorgako Arkaitz dantza taldea, Ibarra Alur dantza taldea eta Tolosako Udaberri dantza taldeak izugarri lagundu digute, batez ere jantziei eta bestelako materialari dagokionez».

## Ikuskizuna aurkeztuz

Villabonan *Oroituz*-en aurkezteko ekitaldia bada ere, udan ekitaldi gehiago izango dituzte. Abuztuaren 14an Zarautzen ariko dira eta hurrengo egunean, 15ean, Zeanurin, bietan gauzez. Arduradunak «oso pozik» daude ikuskizuna aurkeztu baino lehen herri gehiagotan aritzeko aukera luzatu die-telako, eta «konfidantza osoa» dute aurrerantzean aukera gehiago agertuko zaizkiela. Biharkoa egunerarte taldeko partaide izandako guztiak eskaini nahi diete Oinkariko arduradunek.

**EKO-TOLOSA**  
FRUTATEGIAK *ondo pasa santioak!*  
www.ekotolosa.com  
Tel.: 943 69 30 47 • Nagusia, 3 • Villabona



**CLAUDIO**  
**HERATEGIA**  
Festa zoriontsuak opa dizkizue!  
Kale Berria, 60  
VILLABONA  
Tel.: 943 69 29 45  
Etxekoa: 943 69 06 71



**ABURUZA** Eraikuntzak, S.A.  
Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA



**Villabonako jaietan ere zuekin!**

**MAXOLA TABERNA**  
Erribea, 4  
Tel.: 943 69 05 91

**SHEPHERD'S**  
Kale berria, 25

**JOE BAR**  
943 69 31 54  
Antxin, 1 • VILLABONA

**Taberna Rainbow**  
Nagusia 46 • Tel.: 943 69 35 16

**IRV ALDETA EDARITEGIA**  
Kale Berria, 15  
Tel.: 943 69 09 41

**TRAPPELO**



PALETA ▶

## Finalerdiak jokatzeko bikoteak, erabakita

Lontxo-Nazabal, Zabaleta-Urdanpilleta, Otermin-Goitia eta Apeztegia-Maiza dira

ERREDAKZIOA

Aste honetan amaitu da Tolosa CFk antolatutako XXXVII. Pala Txapelketako lehen fasea. Ostegunean jokaturako partiduetan Balerdi-Artolak 30-29 irabazi zieten Eizmendi-Arandiari; Landa-Huegunek 30-15 Agirre-Egilazi, eta Otermin-Goitiak 30-15 Yugueros-Aldazabali. Ostiralean jokatu zuten gerora finalerdietan sartu diren lau bikoteak eta multzo bakoitzeko lehen postuak erabaki ziren. Lontxo-Nazabalek 30-24 irabazi zieten Zabaleta-Urdanpilletari eta Otermin-Goitiak 30-22 Apeztegia-Maizari.

Finalerdiak datorren asteazkenean, hilak 27, jokatu dira Berazubini 19:00etatik aurrera. Lehen partiduan Lontxo-Nazabal Apeztegia-Maizaren aurka ariko dira eta ondoren Zabaleta-Urdanpilleta Otermin-Goitiaren aurka. Finalak ostiralean jokatu dira ordu eta leku berean. Ondoren lagunarteko afaria izango dute partaideek.

NEREA OTAEGI ▶ GIMNASTA

# «Espainiako Txapelketan bigarren geratzea izugarria izan da niretzat»

Benicarlon egin berri diren Espainiako Txapelketan bigarren postua lortu du gazte tolosar honek



J.GOIKOETXEA

JULEN GOIKOETXEA

Nerea Otaegi tolosarra bigarren sailkatu da Benicarlon (Castellon) egin berri diren Es-

painiako Txapelketetan. Gaur egun Donostiako Gimnastika Erritmikoko Klubean ari den 16 urteko gazte honek esperientzia handia du kirol honetan, urte asko bait daramatza. Txapelketari eta beste hainbat gaii buruz aritu zen hizkettan HITZAREKIN kirolari tolosarra. **Lehen urtea gorengo mailan eta Espainiako azpitxapeladun izan zara. Espero al zenuen horrelakorik?**

Banekien ondo egiteko aukerak banituela, baina hain aurrean geratzea ez nuen espero. Hiru urte daramatza maila nagusian lehiatzen eta aurreko bietan bi domina nituen lortuak. Espainiako Txapelketara joan aurretik, beste hainbat probatan aritu nintzen eta horien artean Erreginaren Kopan hartu nuen parte Salamancan. Han lortutako bigarren postuaren ondoren hasi nintzen kon-

turitzen Espainiakoan itxura on bat emateko aukerak nituela.

**Zer sentitu zenuen Espainiako bigarren geratu zinelan esan zizutenean?**

Txapelketa aurrera doan heinean, ariketa bakoitzeko puntuazioa jakiten joaten zara. Parte-hartzaileak pasa eta artean nire burua aurreko postuetan ikusi nuenean ez nintzen urduri jarri eta bigarren postua ziurtatuta ikusi nuenean sekulako poza sentitu nuen. **Txapelketa nola joan zen eta ze ariketa mota egin behar izan zenituen?**

Txapelketak hiru egun iraun zuen. Lehendabiziko bi egunetan lau aparatutako ariketak egin genituen eta azken eguneko finalak izan ziren. Lehen egunean, soka eta pilotarekin aritu ginen eta bigarrenegun maza eta zintarekin dugun abilezia erakutsi behar izan genuen. Lau ariketak amaitzean bagenekien finalean sartuak ginela. Hurrengo eguneko finaletan lana ondo egin nuen eta bigarren postua nireganatzea lortu nuen.

**Beraz, urte oparo batentzat amaiera paregabea izan da, ezta?**

Dударik gabe. Lehen aipatu bezala, gorengo mailan daramatzadan hiru urte hauetan lau domina lortu ditut eta horietatik bi aurtun. Beraz, urte bikaina izan da niretzat.

**Baina azken urte hauek ez dira lehenbizikoak izan. Noiz hasi zinen gimnastika erritmikoa?**

Lau urte nituela hasi nintzen kirol hau egiten Ibarako Bela-bieta taldean. Zazpi urtez bertan jardun ostean, hamaika urte nituela Donostiako Gimnasia Erritmikoko klubera joan nintzen eta bertan jarraitzen dut gaur egun.

**Diziplina handia eskatzen duen kirola omen da zuena. Nolokoa izan ohi da entrenamendu aste bat?**

Astean sei eguneguz entrenatzen dut Donostian. Igandeak jai izaten ditut. Entrenamendu bakoitzak 4-5 ordu irauten du, baina nahiz eta gogorra izan ni oso gustura ari naiz.

**Hainbeste denbora kirolari emanda, erraza al da ikasketak eta kirola batera eramatea?**

Kanpotik ikusita ezinezkoa dirudi bi gauzak batera egitea, baina barrutik beste era batera ikusten da. Norberak orden apur batekin hartzen baditu egitekoak, ez dago arazorik.

**Etxeok ere gustura izango dira noski?**

Hala da bai. Laguntza handia ematen didate eta nik trukean, daukadan guztia ematen saiatzen naiz.

**NATURHOUSE**  
Dietetika eta nutrizioa  
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*  
Nagusia, 43 • Billabona • Tel.: 943 69 43 31

**Foto NAIARA**  
Nagusia, 9  
BILLABONA  
Tel.: 943 69 64 82  
JAI ONAK OPA DIZKIZUE!

**Loatzo** Etxeko osagaiak  
Koltxoia, lanparak, mueble auxiliarrak eta sarrerak  
Errota kalea, 3 • Billabona • Urrutiz.: 943 69 21 35

Jai zoriontsuak opa dizkizue  
billabonatar guztiei!  
**MAPFRE**  
ASEGURAMENTS SU CALIDAD DE VIDA  
berria, 15 • Villabona  
Telf.: 943 69 22 19

**Nahikide KIO**  
Tel.: 943 69 64 84  
Faxa: 943 69 33 59  
Larrea auzoa, 8  
20150 BILLABONA  
Gora Santioak!

**EIZMENDI ARMATEGIA KIROLDENDA**  
Kirol gaiak konpontzeko lantegia  
Aukera handia eskopeta eta kartutotan  
**ONDO PASA JALETAN!**  
Berria, 19 • Billabona  
Tel.: 943692623 • Faxa: 943693044

**MUSTURINEA**  
**Festa zoriontsuak pasa!**  
Nagusia, 14 • Villabona  
Tel.: 943 69 68 01



ELKARTASUNA ▶

# Egur lehortegia martxan

San Joan bezperan jarri zuten martxan tolosar batzuen laguntzaz Txileko maputxeen komunitaterako hain garrantzitsua izango den proiektua

JOXEMI SAIZAR

**B**i herrialde eta kulturentzat data seinalatuan, San Joan bezperan eta maputxe kulturako Watripantu urteberri egunean —ekainak 23— iritsi zen albiste ona: martxan jarri dute Curarrehuen (Txile) tolosar batzuk denbora luzean zehar bultzatutako Tolosa izeneko egur lehortegia, Iñaki Arriola apaiza eskolapio tolosarra bizi den maputxe komunitatearentzat hain garrantzitsu izango den proiektua

Horretarako Gorostidi taillerretako Florencio San Millan eta Jose Aranburu joan ziren bertara, makina montatzera, Lleidako Lorenzo Sole eta bere emaztearekin batera. «Lan asko egin behar izan zuten bi tolosarrek bukatu ahal izateko. Lasai ibiltzeko eta turismo egiteko denborarik ez diegu utzi», azaltzen du Arriolak. Txileko langileak erritmo horretara ez zeudela ohituta eransten zuten, asteburuan ere lan egin behar izan baitzuten. «Haragi errearen festarik gabe bukatzen duten lehen lana izango da. Egin beharko dugu, baina talde osoa ez da izango jada», dio apaizak.

Egurra lehortzeko makina erabateko martxan jartzeko



Arriola apaiza San Millan eta Aranbururen artean, Sole senar-emazteak eta hiru maputxe zerrategian. HITZA

oraindik zerbait falta arren, lehen probak ondo joan dira eta aurrerapen handia izango da Curarrehueko komunitate maputxearentzat, berari esker askoz ere diru gehiago irabaziko baitute, egur lehortua lauzpabost aldiz garestiago saltzen baita. Duela sei bat urte hasi

zen tolosar talde hau bere laguntza lurralde hartara bideratzen: makinaria, dirua, orain lehortegia...

Bertan dituzten harremankin ez badira moldatzen, hurrengo pausoa hango pertsona bat formatzea izango da, makinari beharrezko etekina atera

ahal izateko. Lan batzuk falta dira oraindik erabat bukatzeko: kaldera eta mando gela ixtea, lehortzeko kajoia estaltzea, ihes txiki batzuk seilaltzea... Komunitateko biztanleek egiteko moduko gauzak direlako utzi zituzten bukaerarako. «Ez dakit nola ordaindu tolosarrek egindako guztia. Ondo egindako lanaren pozak adiskidetasun eta elkartasunaren bidean jarraitzeko zuen ilusioa eta borondatea handitzearen alaitasuna gelditzen zait», adierazi du Arriolak.

## Laguntzeko aukera

Proiektu honen kostua azkenean 80.000 eurotara igo da. Gehiena ordainduta dago, baina laguntza eman nahi duenak Kutxan eta BSCH banketxean



Tolosa egur lehortegia. HITZA



IÑAKI ARRIOLA  
APAIZA ESKOLAPIOA

«Ez dakit nola ordaindu tolosarrek egindako guztia; elkartasunaren bidean jarraitzeko ilusioa handituko da»

irekitako kontu korronteen bidez egin dezake. Proiektua martxan jarri duen tolosarren taldeak hainbat erakunde, enpresa, artista, kirolari eta partikularren —Donostiako batzuk ere tartean dira— laguntza eskertu nahi du: Tolosako Udala, Kutxa, Caldereria Urto, Talleres Gorostidi —Agustin Ruiz, Roberto Diez, Florencio San Millan, Jose Aranburu, Goiburua, Izquierdo, Azurmendi... ekipo teknikoa—, Ainhoa Arteta, *El Juli*, Abraham Olanu, Ricardo Ugarte, Arteleku...

Azken pertsonai ezagun hauek doan emandako objektu gehienak —jantziak, mailota, eskulturak...— salduta daude jadanik eta lortutako dirua ere Tolosa egur lehortegia proiektua laguntzeko erabiliko da.

## Iñaki Arriolaren eskertza Txiletik

Iñaki Arriolak Curarrehuetik bidalitako eskertza gutuna: «Mundu justuago eta gizatiarrago batekin amets egiten dutenei, eta ez bakarrik amets egin, elkartasunaren hizkuntza bere ametsa errealitate bihurtzen dakitenei.

Gauza batzuk eskertzarik ez dutela behar badakigu, pertsonak zenbait klabetan jokatzen duenean jokuan jartzen duena askoz ere gehiago delako; baina denagatik eskerrak eman nahi dizkiet: guran izandako konfiantzagatik, bere animo eta adiskidetasunagatik, bultzatzen jarraitu eta gelditzen ez uzteagatik, elkartasunaren lurralde hain urrun eta hain gertu honetan berrituz ezagutzeagatik.

Era batera edo bestera jende araucano honi laguntzen dioten guztiei gure eskertza helaraztea nahi genuke. Gehie-

nen izenak ez ditut ezagutzen eta seguraski beraiek nire aurpegia ez dute ezagutuko, baina kezka bera konpartitzen dugu.

Elkartasunak aurpegirik ez duela diote batzuk, baina bere trazuak besteak ikusi gabe ematen duen eskuarenak dirrela ziur nago.

Curarrehueko biztanle asko indigenak dira, maputxeak. *Gillatun* ospakizun sakratuan *Chaogenechen-i* —gauza oro-oren egile den Jainkoa— eskaintzen diote bere sakrifizioa. Zeremoniaren zati batean gizonek, zaldi gainean, *rehuearen* —aldarea— inguruan bueltak ematen dituzte, zaldien apoekin lurrean burrunba eginez, zirkulutik lauoinka ateraz eguzkiaren sorlekura. Horixe da bere otoiiza: beraiek, maputxeek —lurraren semeak— lurra dardarka jarri

nahi dute dardarizoaren zarata bere —eta gure— Jainkoari bidaltzen dioten otoiiza izan dadin. Lurraren otoiiza da.

Elkartasuna bizi garen lurraren burrunba bezalakoa da. Lurra dardarka jartzea zaharkitua den guztia eta bidegabekeria erori arte, gure barruan indibidualismoak dardarka jarri arte. Gure lurraren dardara gure eta bere Jainkoarengana igotzen den otoiiza egin ezazue.

Pertsonalki agurtu eta inoiz ezingo dutenen izenean esker-erak eman nahi nizkizueke. Gure dardara gehitu. Egoe-erak ez digu uzten. Elkartasun lur berean bizi garela jakitearen kontsolamendua gelditzen zaigu, bere zaldien zaratari jasaten jarraitzen duen Euskal Herri zahar horretako asfaltoko zuen ibilkeraren zarata elkartzen diogula jakitea». ◀

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Sukaldaria.** Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33.  
**Alegian.** 08:00etatik 15:00etara ume bat zaindu eta etbeko lanak egiteko emakume bat behar da. Autoa beharrezkoa da. Deitu 669 05 19 28.  
**Emakumea.** Zerbitzu enpresa batek 25-35 urteko emakumea behar du. Derrigorrezkoa gida kameta. 15:00etatik 17:00etara deitu 943 67 60 15 telefonora.

## ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

### Zorion agurrak.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK OPORRAK hartuko ditu abuztuan. Hilabete horretan urteak betetzen duen inor zoriondu nahi izanez gero, egunotan duzu aukera argazkiak ekartzeko. Berehala argitaratuko ditugu!

IKAZTEGIETA ▶

**Jaietako herri afarirako izena emateko epea**

Abuztuaren 6an Ikaztegieta-ko Ama Birjiniaren jaien egitarauaren barnean izango den herri afarirako izen-ematea zabalik da dagoeneko. Hila honen 31 baino lehen egin beharko da Toki Alai tabernan.

TOLOSA ▶

**Arantzazura erromesaldia San Inazio egunean**

Urtero legez, datorren hilaren 31n, Loiolako San Inazio Eguna dela eta, Arantzazuko santutegira erromesaldia antolatuta dute. Izen-ematea eta ondorengo bazkarirako txartelak jasotzea Tolosako Frantziskotarren elizan egin daiteke dagoeneko. Arantzazura autoz doazenak ere erromesen bazkarirako txartelak erosi ahaliko dituzte bertan, 16 euro ordaindu beharko dituztelarik.

TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112)) Osasuna.**

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
  - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
  - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
  - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
  - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
  - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
  - ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
  - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
  - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
  - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
  - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
  - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
  - ▶ **Tolosa.**
    - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
    - ▶ San Esteban: 006800
    - ▶ Gernikako arbola: 006900
    - ▶ Amaroako dispen.: 672637
    - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
    - ▶ DYA: 672536
    - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
  - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe Tolosa: 652889
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

ALEGIA ▶ GIZARTEA

**Haurrak eta musika protagonista AHTren aurkako akanpadan**

Goizean zehar burututako tailerren ondoren, hainbat kontzerturekin agurtu zuten eguna Languarren bildutakoek

JULEN GOIKOETXEA

Atzokoa bigarren eguna izan zuen AHTren aurkako akanpada. Goizetik hasita, hainbat ekitaldi izan ziren Languarren bildu zirentzat. Goiztiarrenek haurrak izan ziren. Tziala taldeak antolatutako tailerren gustura aritu ziren umeak. Era guztietako eskulanak egiten jardun zuten margo, puxika, kola eta abarrekin esku eta jantziak zikinduz. Euren gozamen aurpegiak ez zetozen bat gurasoekin.

Ondoren nagusien txanda iritsi zen. Itoitzko solidarioek beste tailer bat antolatu zuten eta han bildu zirenek hainbat jokoren bidez, bazkalordurarteko tarte era atsegin batean igarotzeko aukera izan zuten. Goizean galdutako indarrak berreskuratzeke, Languarren bertan prestaturiko bazkariak gozatu zuten akanpadan bilduta direnek. Bazkalostean, nahi zuenari lo apur bat egiten utzi zitzaion eta ondoren mural pintaketari ekin zioten.

Egun guztiko jardunaren ondoren, iluntze partean festarako tarte ere izan zen. Languarretik jaitsi eta Alegiako kaleetan ibili ziren akanpadako kideak jai giroan. Ondoren zahagiardoarekin afaldu zuten eta artean indarrak gordetzen zituztenek Bulebarreko kontzertuetan gorputza astintzeko aukera izan zuten Basque country of faraons, Gaizkiñe eta Acido C taldeekin. Asteburukoarekin nahikoa izan ez zutenek, aste osoan izango dute akanpadan jarraitzeko aukera.



Haurrak, Tzialak antolatutako eskulan tailerren. JULEN GOIKOETXEA



Akanpadan bildutako hainbat lagun, Itoitzko solidarioek antolatu zuten tailerren. JULEN GOIKOETXEA

iragarki laburrak ▶

**Haur zaintzaileak,** bereziak, adinekoak, hezitzaileak. Lanpostu libreak: jantokiak, haur eskolak. Informazioa doan eskuratu nahi duenarentzat deitu 943 65 01 93 telefonora.

**Administrari laguntzaileak.** Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Lanaldia: astelehenerik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan 943

65 01 93 telefono zenbakira deitu gero.

**Gidariak.** Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritza. Astean 35 ordu. Informazioa doan. 943 65 01 93.

**Suhiltzaileak.** Hurrengo deialdiak: Gipuzkoa. 1.400 euro/hilean. Astean bi lanegun. Azken lanpostuak. Informazioa doan. 943 65 01 93.

**Peoiak, ofizioko langileak.** Lanpostu finkoak: igeltseroak,

argiketariak, iturginak... eraikin publikoetan mantentze-lanetan aritzeko. Lanaldia: astelehenerik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan. 943 65 01 93.

**Administrari laguntzaileak.** Plaza libreak daude udalberako. 1.200 euroko soldata hilabetean. Lanaldia: astelehenerik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan lortzeko aukera, 943 65 01 93 telefono zenbakira deituta.

EGITARAU ▶

**GAUR**  
10:30. Umeentzako tailerra eta AHT tailerra.  
11:00. Emozioak askatzeko tailerra Pantzikaren eskutik.  
12:00. Hitzaldia: *La lucha comunera en Castilla*. Hizlaria: Izquierda Castellana kide bat.  
14:00. Bazkaria.  
17:00. Hitzaldia: *Por una sociedad desindustrializada y desurbanizada*; hizlaria Felix, Los amigos de Ludd taldekoa.  
19:30. Hitzaldi-debatea: *Eskubide zibil eta demokratikoen aldeko kanpaina*. Segi-ko kideekin.  
21:00. Afaria eta koordinazio bilera. Gero, antzerkia *Mutazita* eta Esan jay konpartsa.

BIHAR

10:00. Mendi martxa, akanpadatik Ordiziara. Umeentzat egun osoko tailerra.  
14:00. Bazkaria mendian eta akanpadan.  
19:00. Ordiziko Goierriko batukadarekin kalejira.  
21:00. Afaria akanpadan. Ondoren, koordinazio bilera izango da.  
22:30. Mantalano kantautorearen kontzertua.

**Tolosako Udala**

IRAGARKIA

Tolosako Udalak udalbazain plaza bat betetzeko deialdia egin du. Plaza lehiaketa-oposizio librez betekoa da.

Deialdiaren oinarriak eta instantzien ereduak 2005eko uztailaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 129 zenbakian, argitaratu ziren. Instantziak aurkezteko epea 2005eko abuztuaren 8an bukatuko da.

Instantziak eta oinarrien fotokopiak Tolosako Udaltzeko Informazio eta Erregistro Bulegoan eskura daitezke.

Tolosa, 2005eko uztailaren 20a  
Alkathea  
SINATUA. JOKIN BILDARRATZ SORRON

IBARRA ▶ KULTURA

# Magrebeko kultura hurreago

Jende asko bildu zen arratsaldeko henna, arabiar idazkera, sabel dantza eta ogia egiteko tailerretan; gauean afari tipikoa eta kontzertu emanaldia izan ziren



Sabel dantzarekin ere ausartu ziren batzuk. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Magrebiar musika, jakiak, ohiturak... Guztiak Ibarra heldu ziren atzo arratsaldean, Irazki elkarteak antolatutako Magrebiar Festan izan ziren ekitaldietan. Horrela, magrebiar kultura gertuagotik ezagutzeko aukera izan zuten San Bartolome plazara hurbildutako interesatu eta begiluze guztiak. Orotariko aukera izan zen bertan, ikusi, ikasi eta gozatzeko. Jende ugari gerturatu zen Magrebeko bizimodua hobeto ulertzeko helburuz. «Beste kulturen berri izatea beti izaten da interesgarri», aipatzen zuen arratsaldean tailerretan zegoen bisitari batek.

Arratsadeko lehen orduetan magrebiar tailer ezberdinak egin zituzten, henna nola egin, hau gorputzean nola erabili eta bere esanahia irakatsi zuten emakume marrokiarrarena, zartagiaren ogia egiten irakatsi zuten okinarena, arabiar idazkerarena eta sabel dantza tailerra. Tailer hauetan landutako eskulanekin plaza atondu zuten, gaueko afarirako, non oilasko eta pasazko *cous-cous*-a, haragia, arrautza gogortua, aranek dituen tajine eta Marokoko gozo tradizionalak eta tea dastatzeko aukera izan zen. Festari amaiera emateko, Cheb Mougai taldeak emanaldia eskaini zuten San Bartolome plazan, Iruneren sabel dantzarekin batera.

Tailerretan irakasten aritu zirenak ere «pozik» azaldu ziren jendearen partaidetzarekin. «Jendeak interesa erakusten du gure kulturarekiko eta adidi entzuten diete guk hemen eskainitako irakaspenei», azaldu dute.

## Hurrengo dagoeneko abian

Bigarren urte antolatu du Irazki festa magrebiarra, aurtengoan Ibarra Udalaren eta Sendi Ekintza elkartearen laguntzarekin. Jaia honen helburua «beregari hartu gaituen Euskal Herriarekin eta herrialde desberdinetik etorri diren etorkinekin bat egin nahi dugu», adierazi dute antolatzaileek. «Gure kultura ezagutzera eman nahi dugu, bai eta adiskidetasun eta elkarbizitze loturak sendotu ere, gastronomia, jokuak, musika eta dantzaren bitartez», gaineratu dute. Iaz Tolosak jaso zuen lehen edizioa eta hirugarrenean pentsatzen ari dira, azararon Tolosan izango dena.



Henna nola egin irakasten zuen tailerrak gaztetxoek erakarri zituen gehien. NOELIA LATABURU

TOLOSA ▶

## Produktu eskaintza zabala eta bizia izan da

Ibarrako piperra izan da nagusi eta perretxiko eskaintza zabala ere ikusi da

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguneko giroan eguraldiaren eragina nabaritu genuen. Lainoak eta freskotetasunak bisitarien errotimoa lasaitu zuten. Udara garaia eragina ere somatu genuen; azkenean ateratako ondorioa, lasaitasuna.

Produktu eskaintza ordea, oso zabala eta bizia izan zen. Barazki ugari postu guztietan, Ibarra piperra nagusi izanda, eta garai ona honelako produktuak dastatzeko. Tomatea, piperra, letxua, tipulina, lekak edo eta patata oso egoera onean daude.

Perretxikoen eskaintza agortuta egotea espero izan arren, atzo ikusitako zerrenda zeharo kontrakoa izan zen. Ia 150 kilo onddo, gibeturdinak, ziza horiak, eta kuletroak ere izan ziren. Dirudienez, egun hauetako euri gabezia eta beroa ez du eragin handirik izan duktu honengan, eta oraindik izando dugu dastatzeko aukera.

## ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Perrejilla	0,05	0,06
Piper borizeroa	0,35	0,40
<b>Bertako produktuak</b>		
Onttoa	15,00	18,00
Tolosako babarruna	8,00	12,00
<b>Produktu ekologikoak</b>		
Baratxuria	1,60	6,00
Tipula	1,75	2,00

## hilberriak eta urteurrenak ▶

eskelak hartzen dira: 19:00ak arte • 954 65 56 95 • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info • Hitza guztietan prezio berean

### Joxe Aristi Garmendia (Kontxi Alustizaren alarguna)

Atzo hil zen, 90 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Golan bego —

Bere seme-alabak: Juani eta Inaxio Agirrezabala, Juan Miguel eta Pilar Oria, Axun eta Miguel Zaldia, Pilar eta Jesus Manso, Javier eta Itziar Urdampilleta; bilobak: Amaia eta Javier, Sorkunde, Iñaki eta Ainhoa, Leti eta Joxi, Ana eta Txus, Nerea eta Enrike, Begoña eta Arkaitz, Oskar eta Fatima, Lur eta Aitor, Joseba eta Sonia, Intza eta Xabi, Urko, Ainara eta Aitor; birlobak: Jon, Mikel, Nerea, Ana eta Haitz; ezkon ahizpa: Teresa Alustiza; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela ASTEARTEAN, arratsaldeko ZAZPIETAN, SANTA MARIA parroki eliza egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Baserrira: Isastegi Goikoa (Aldaba biki)

oharra ▶ gorputz bella Tolosako Funeraria Vascongado Beillatokiaren egingo da, igande goizeko 9:00ak arte

TOLOSA, 2005eko uztailaren 24a



### I. urteurrena M. del Coro Roteta Maiz (Simon Urkolaren alarguna)



Ahaztu dugun hura  
hiltzen delako soilik  
maite zaitugulako  
oroitzen zaitugu bizirik

Zure seme-alabak eta bilobak

ANOETA, 2005eko uztailaren 24a



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko uztailaren 24a, igandea ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



BIHARKO EGURALDIA

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

**Tolosa.** Datorren larunbatean, hilak 30, egingo den euskal selekzioaren aldeko Kostako Txirriindulari Itzulirako izen-ematea, Txiki tabernan.  
**Villabona. Santio jaiaik.** Gaur 09:00etan diana-kalejira Santio Txistulari taldearekin; 11:00etan dantzari txikien kalejira auzoz-auzo eta pilota partidak plazan; 12:00etan kanpai errepika; 13:30ean hasierako txupinazoa Los Pasai barangak alaituta, erroskilaren igoera Onddo gazte asanbladaren eskutik; 14:00etan herri bazkaria Los Pasai barangak alaituta; 18:00etan dantzari txikien emanaldia plazan; 20:00etan dantzaldia Nekin taldearekin plazan; 23:30ean dantzaldia Nekin taldearekin plazan.  
**Bihar, Santio Eguna.** 09:00etan sokamuturra plazan Tolosako dultzaineroek alaituta; 10:30ean herri krosa, Txerminein; 12:00etan meza nagusia parrokan eta kalejira Valttierrako musika bandarekin; 13:00etan Valttierrako musika bandaren kontzertua Berdura plazan eta Udal korporazioak urteroko bisita Santiago Egoitzara, Santio Txistulari taldeak lagunduta; 17:00etan erraldoi eta buruhandien irteera Tolosako dultzaineroek alaituta; 18:00etan soka dantza plazan, herriko Oinkari dantza taldearen eskutik; 20:00etan dantzaldia Irailerrako 6 taldearekin plazan; 22:30an Oroituz emanaldiaren aurkezpena Oinkari herriko dantza taldearen eskutik Olaederra kiroldegian; 24:00etan dantzaldia Irailerrako 6 taldearekin Plazan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur**  
 Tolosa. Ollareaga, J. Martin Jose Iraola, 10, 943 67 43 82.  
 Leitza. Gimeno. Elbarren, 52, 112.

**Bihar**  
 Tolosa. Bronte: Korreo kalea, 20, 943 67 60 13.  
 Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95, 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

# Jaiki da Jeiki

LEITZA ▶ Indartsu eta goxo, abesbatzak kontzertu paregabea eskaini du

JAIONE ASTIBIA

Txalo artean hasi bazen Jeiki abesbatzaren emanaldia, are eta zaparrada handiagoz eman zioten bukarea, bertara bildu zen entzulego ugariaren ikusmina oso-osoan ase bete zutenaren seinale.  
 Iazko emanalditik urtebete igarota zen. Ikasturte osoan zehar prestatzen aritu dira jo eta su, astean bitan elkartzu eta saio bakoitzean, 3 orduz aho-tsa landu eta abestiak ikasiz. Eta, hara, egindako eginahalak bere fruituak eman zituen, ostiral iluntzean zinema aretoan egin zuten kontzertuan: Pontxito Irurtiak zuzentzen duen 37 kideko ahots nahasietako Jeiki abesbatzak bere indarraren eta gaitasunaren erakustaldi dotorea egin zuen, bertan bildu ziren 250 bat entzuleren be-larri barrenak goxatuz.  
 Esan bezala, kontzertua zinema-aretoan egin zuten, oso areto «zorrotza» akustikari dagokionez, eta bestalde, Jeiki egun horretarako aukeratu zuen errepertorioa bera interper-tatzeko zaila izan zen, egin zituzten abesti disonante mor-doska eta bestelako zenbait piezen goreneko konplexutasuna tarteko zirela, esaterako aldi berean eskalako 7 notak



37 ahotsek Pontxito Irurtiaren zuzendaritzarekin, soinu goxoa eragiten die Jeiki abesbatzari. JAIONE ASTIBIA

batera egin zituzten ueña izan zen. «Ongi eginez gero, oso doinu politak dira», zioten esate-rako Karlos Etxeberriaren ego-kitzapena duen *Dulce tiempo de primavera* abestia egitera-koan. Eta ongi egin zuten, entzuteko «goxoa» ere egin bai-tziztaion entzuleari pieza hori, emanaldia oso-osoan bezala.  
 Saioa XVI. mendeko 5 madri-gal-ekin hasi zuten, Navarro, Willaert, Di Lasso eta Monte-verdi-renak; gero, bertako doi-nuak, Pildain, Busto, Pastor eta Olivier-enak; amaitzeko Muji-ka, Prieto, Etxeberria, Mokoroa eta Sabadellen obrak eskaini zituzten.

AGURRAK ▶

Agurrak argitaratzeko etorri HITZARA; ekarri argazkia



**ZORIONAK**  
 Ixone Urkiri Jauregi (Alegia).  
 Gaur 8 urte. Egun polita pasa dezzaluz.  
 Amaroizo osaba-izebek eta Uriaiek.



**URTE ASKOAN**  
 Amona Maria (Amezketeta).  
 Gaur 90 urte. Zorionak eta ondo pasa.

**URTE ASKOAN**  
 Jose Cruz eta Pili. Ondo pasa zuen Zilarrezko Ezteietan.  
 Muxu potolo bat bi alabatxoen partetik eta zorionak!!

Et dezala jakin nire nagusiak

## "OPORRETARA NOA EROSKI BIDAIAK-EKIN"

(Ahorretu, Eroski Bidaiak ez du inolako agentzia izateko laguntza.)

**Onar ezazu.**  
 Ez ezazu ezer horerik aurkituko, beharrezkoak izan ezazake eta/eta suarekin prestatu ondoren giza onak dituzten agentzia bakarra gure. Eroski EROSKI Bidaiakera eta Badi gure zurek.

<b>Salou</b>	375€
<small>DE DIA 05/15an, 8 egun - 7 gau. Hoteleko Baita hotel***. Hoteleko erala. LEHEN NAURRA DONAZIA.</small>	
<b>Benidorm</b>	375€
<small>DE DIA 05/15an, 8 egun - 7 gau. Centro Playa Hotel***. Hoteleko erala. LEHEN NAURRA DONAZIA. EGUNAREN NAURRA NAGUSI DEZKUTUA.</small>	
<b>Andalucía</b>	435€
<small>ROQUETAS DE PAZ - ALMERIA, DE DIA 05/15an, 8 egun - 7 gau. HAI HOTEL***. Hoteleko erala.</small>	
<b>Lanzarote</b>	360€
<small>Uztailaren 15an, 8 egun - 7 gau. Neguakino Baita. Baita Club Apartamentu***.</small>	
<b>Tenerife</b>	389€
<small>Uztailaren 05/15, 05/15, 05/15, 8 egun - 7 gau. Neguakino Baita. Hoteleko erala. Gaurerak berak.</small>	
<b>Paris</b>	299€
<small>DE DIA 05/15an, 8 egun - 7 gau. Hoteleko Baita. Hoteleko erala. LEHEN NAURRA (2 - 12 URTE) NAGUSI DEZKUTUA.</small>	

**EROSKI bidaiak**  
 merezi duzu